

ARETXABALETA / Liburutegiko bazkide eta mailegu kopuruak igo egin ziren 2009an

Aretxabaletako Udal liburutegiko bazkide kopurua nabarmen igo da, baita maileguena ere. Liburutegia Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barne dago. Horrek abantaila gehiago ekarri dizkie atxabaltarrei, sistema honen barne dauden liburutegi guztietako bazkide ere baitira. Bazkide txartela eskuratzeak ez dauka batere zailtasunik. 0-15 urte bitartekoa bazara gurasoek inprimaki bat bete behar dute. Nagusiagoa izanez, NA aurkeztuz eta orri bat betez gero nahikoa da.

Aurretik aipatutako guztia eta liburutegi berriak duen eskaintza zabalak bazkide kopurua gora egiteak ekarri du 2.288ra heldu arte. Maileguei dagokionez, 2009an 15.809 dokumentu eman ziren, 9.745 helduei eta 5.972 hurrei. 2007an, aldiz, liburutegi berria zabaldu aurretik 7.057 mailegu eman ziren. Bi urteren epean mailegu kopurua bikoiztu egin da. Jendea liburutegia erabiltzen hasi da eta jada atxabaltarrek beraien ohituretan barneratu dute bertatik pasatzea.